



elkar

• PERTSONAIA •

Jon Jaka

«Gustura itzuliko nintzateke Bilintxeko salmahaira»

Hogeita hamar urte bete ditu aurten Donostiako Bilintx liburu dendak. Sona handiko instituzioa gure saltegietan, euskarazko liburuari egin zion lekuagatik. Jon Jakak bertatik bertara bizi izan zituen dendaren hasierak eta hainbat urte egin zituen, salmahaiaren atzean. Ereindako haziak uzta eman du urteen joanean: Elkar megadendak ditugu gaur egun.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Bilintx liburu denda, Donostiako Fermin Kalbeton kalean. Bilintx, eta Jaka anaiak.

Jaka anaiotan, lau: Joseba zena, Goio, Xanti eta ni neu. Baina sortzaile taldean beste hiru lagun ere ageri dira: Sors anaiak eta Inazio Lizarraga. Horiexek hasiera-hasierako.

Nola izan zen dendaren abiatzea? Zertan zinen zu, adibidez, garai hartan?

Hemeretzi urte nituela sartu nintzen ni liburu munduan. Joseba zenak zerikusi zuzena izan zuen horretan. Zumarragan bizi ginen eta Irimo fabrikan ari zen lanean, makina

Nortasun agiria

Jon Jaka Auzmendi (Zegama, Gipuzkoa, 1952). Etxarri Arantzen (Nafarroa) du gurasoen jatorria. Ezkonduta heldu ziren Zegamara, Idiazabalen txangoa egin eta gero. Arizti Zahar baserrian bizi izan ziren lehenengo, eta Mendi Garate izenekoan, ondoren. Zortzi anaia izan ziren, baina bigarren jaiotakoa berrogei egun zituela zendu zen. Morroi joan zen bizpahiru urtez eta gero, Zumarragako (Gipuzkoa) Irimo lantegian hasi zen, San Balendin egunez, hamalau urte zortzi egun lehenago bete berri zituela. Baina liburu salmenta egin zuen bere mundu, Joseba anaia zaharragoaren urratsei jarraiki. Bilintx liburu dendako salmahaian jardun zuen lanean, hariak eta anaiaren heriotzak barne-antolaketa berria eragin zuen arte. Elkar megadenden zuzendari nagusia da harrezkero, nahiz eta, hitzez hitz, "aukeratu beharko banu, Bilintxeko salmahaia aukeratuko nuke". Donostian ezkonduta bizi da, bi seme dituzte, hogeita bi urte ditu txikiak, baina, hala ere, sarri ageri da ikastola bileretan, laguntzeko borondate guztizkoan.

Morro

"Hamaika urtetik hamalaura morroi izan nintzen Zegamako baserri batean. Hamahiru urterekin, goizeko seietan jaikitzen nintzen. Artoa jorratu, belarrak bildu... Baserriko lanean jarduten genuen, familiarik aparte. Urtean bizpahiru alditan besterik ez nituen ikusten guraso eta senideak. Lan asko egiten genuen. Lan gogorra, baserrikoa. Ondo tratatzen ninduten, baina guraso eta anaietatik aparte, bakardadea! Umetan morroi joan zen belaunaldiko azkenetakoa izango naiz, seguru".

erremintan. Lanez kanpo, berriz, etxez etxe-ko liburu salmentan ari zen. Halako batean, lantegia utzi eta erabat liburutan hasi zen. Liburua lanbide eta diru iturri. Ni ere Irimon ari nintzen lanean eta, hamasei urte nitue-
nean, abuztuko oporretan, etxez etxe liburu saltzen saiatu nintzen ni neu ere, Gipuzkoan barrena, Josebarekin edo bera inguruan nuela. Ondo atera zitzaidan kontu hura eta horretan jardun nuen bi-hiru urtez. Horixe izan zen gure bataioa. Handik, Bilintx sortze-
ra jo genuen, 1976an.

Zein liburu zenituzten etxez etxe saltzekoak?

Walt Disneyren *Gauza berrigarriak* bilduma, zazpi liburukoa. Euskarazko entziklopedia

itxurakoa zen, izadiari buruzkoa: itsasoa, oiha-
na, txoriak, giza arrazak... Irudi ederdu liburuak ziren. Itzultzaileetan, Xalbador Garmen-
dia, Jazinto Setien, Larresoro –Txillardegia,
alegia–, eta beste zenbait.

Ordurako, opa zenioten itzultzaileen izenari...

Bai, itzultzaile haiek ez ziren edonor. Bestalde, garai hartan furi-furian zegoen euskara batua-
ren auzia. Askok ziren aldekoak, baina kontra-
koak ere baziren.

Eta?

Kontrako haiei euskara batura itzulitako liburuak saltzen saiatzea alferrik zen! Etxez etxe genbiltzan, baina ez gindoazen itsu-itsuan ere. Bezeroetako askok haurrak ikastolan zituzten. Kontzientzia maila handia zuten. Ez dut esperientzia txarren akordu handirik. Izan ere, mundu hori asko zaildu zen gero.

Orduan etorri zen Bilintx denda.

Euskarazko liburu askorik ez zegoen garaian. Edo baziren, baina sakabanatuta zeuden. Etxez etxe salmenta egin genuen bitartean, besterik ere egin genuen: ikastoletarako material didaktikoa izan zitekeena bildu egileen eskuetatik, eta ikastolara eramanez, jakin zezaten materiala bazegoela eta, nahi izanez gero, eros zezaten.

Bitartekari izan zineten...

Baina amateur lana zen. Dena dela, lan horrek jende askorekin harremanak egitea ekarri zuen. Izan ere, zenbait jende bere liburuen autoedizioa egiten zuen. Gero, ordea, etxe-
ko



sotoan pilatzen zitzaizkion liburu haiek; hondatu ere bai... Hortaz, sare bat osatu genuen: alde batetik, egileak ezagutu genituen; bestetik, material haren premian izan zitezkeen ikastolak. Horretan ginela, bildutako liburuak duintasunez plazaratu beharra zegoela jabetu ginen. Franco hil zenean, eltzak gainezka egin zuen, eta aurreko material hari erakusleihu duina eskaini beharra zegoela iruditu zitzaigun. Horrela sortu zen Bilintx, euskarazko materialekin eta euskal gaikoekin, erdaraz idatziak izan arren.

Franco hil aurreko giroan, nola mugitu euskarazko liburuak?

Klandestinitatea erabatekoa zen. Alderdi politikoak, sindikatuak, ikastolak... Dena zen ezkutukoa. Jendeak ahal zuen moduan egiten zuen lan. Guk erabiltzen genituen liburuak –ikastolakoak, esan nahi dut, dela *Mateo Txistu*, *Txuri eta Gorri eta kikiriki*, *Umetxoak*...– batetik bestera ibiltzeko eragozpenik ez zegoen. Kontua da, ikastola batek material horiek nahi izanda ere, ez zekiela nora jo. Hortxe zulatua genuen guk. Ordu arte, euskaraz ateratzen zen zenbait liburu –Auspoa bildumakokak, adibidez– ez zen liburu dendetan saltzen, harpidetza bidez eskuratzen zuen jendeak.

Joseba Jaka

“Josebaren heriotza oso gauza latza izan zen. Hasieratik elkarrekin ibili ginen Bilintxeko zazpi sortzaileok. Bera zen denda ireki aurretik liburu munduaz gehien zekiena. Egiten genuen lanaren kanpo irudia zen Joseba. Eskerrak taldean egiten genuen lan, bestela askoz ere gehiago nozituکو genuen galera. Talde-lanak kolpea arintzen lagundu zigun. Bide egiten jarraitu dugu. Baina anaia bat-batean galtzea, eta lanean profesional inportantea... gogorra izan zen, latza”.

Beste liburu asko, esan dut, sotoetan geratzen ziren. Bilintx liburu dendak hori konpontzera egin zuen. Handik atzera jendeak jakin zuen nora jo liburu bila.

Donostian ireki zenuten Bilintx, Fermin Kalbeton kalean.

Oraindik gogoratzen naiz nola ibili ginen Joseba [anaia] eta biok Donostiako Parte Zaharrean, denda irekitzeko toki bila. Guk hartu genuen lokalean Donostiarra koltxoi-denda zegoen. Katalanak ziren jabeak, erretiroa hartzeko asmotan zirenak. Txartela ere jarrita zeukaten: *Se traspasa* (Eskualdatzen dugu), 1.500.000 peze-ta (9.000 euro). Hamabost eguneko sokatira eta gero, akordiora iritsi ginen. Eta hogeita hamar metro koadroko lokalaz jabetu ginen.

Egokitzapen lanak egin beharko zenituzten...

Bai. Esate baterako, dendak pertsiana batzuk zituen, guztiz herdoilduta. Aurreko hogeit urtean pinturarik ikusi gabe zeuden haiek. Guk sosa urri genituen eta geuk pintatu genituen pertsiana haiek. Eta fatxada garbitu, pintatu... Apalategiak egin ez beste denak egin genituen; haiek arotzek egin zizkiguten.

Eta izena? Bilintx.



Garai hartan oso boladan zegoen horrelako izenak jartzea, kultur giroko mugimenduan, behintzat. Idazle, bertsolari edo antzekoen izenak ziren ohikoenak. Guri dagokigunez, Donostiako Parte Zaharrean ginen, Bilintx handik bertara bizi izandakoa zen... Liburu dendarentzat egokia izan zitekeela iruditu zitzaigun. Izena ere ezaguna zuen jendeak.

Inaugurazio ekitaldiko argazkiren bat ikusita nago...

Beraz, gutxi gorabehera zer izan zen badakizu. Eguerdi batez egin genuen, eta benetako gertakaria izan zen: Herri Irratiak zuzenean eman zuen ekitaldia! Joxe Ramon Belokik egin zuen emanaldia. Han ibili ginen gu, aurreko egunetan, pintatzen, txukuntzen... eta pasadizoan zebilen jendearen galderak erantzuten, zer denda mota ireki behar genuen, eta "liburu denda" esaten genuenean, zer eratako liburuak, jendeak. Guk, "euskarazko liburuak, eta bestelakoak: Ekonomia, Gizarte gaiak, Politika...". Izugarriko ikusmina zegoen. Baina, gainerakoan, oso ekitaldi xumea izan zen: pare bat lagun hitzak, mokadua denentzat, eta lanera!

Dendan bertan ezagutu zintugun lanean.

Errenteriako Ekitaldiak Azaroa

Mintzalaguna

Euskaldunei eta euskra erabili nahi dutenei zuzendutako egitasmoa

Izena emateko:

Lau Haizetara Euskaldunon Elkarte
Telf: 943 34 01 43

Zinema

Helduentzako:

"Jade Eskorpioiaren madarikazioa",
azaroak 8, 19:30ean kulturgunean

Haurrentzako:

"Kiriku eta basapiztiak"
azaroak 10, goizeko 11:30ean kulturgunean

Eskolatik Kalera

Azaroak 30, 17:30ean

Kulturgunean:

ZIRIKA ZIRKUS "Bazen behin zirkoa"

Euskara ikastaroak

Etorkinentzako

"Cursos de acogida en euskara"

Izena emateko:

Euskara Zerbitzua 943 44 96 13
Xenpelar AEK 943 34 02 33
Udal Euskaltegia 943 44 96 80



**euskara
zerbitzua**
errenteriako udala



30 urte

“Orain dela hogeita hamar urte pentsatu ere ez genuen egiten horrelako biderik egingo genuenik. Gizarteak eboluzionatu egiten du, eta guk ere egokitu egin behar izan dugu, baina orduan genuen ideiarik leial iranez, euskarazko produktuari merezi duen leku duina eskainiz, eta euskarazko kontsumitzailerari produktu aukerarik zabalena jarritz eskueran. Horixe da gure funtzioa. Izatez, zerbitzua da guk saltzen dugun produktua. Produktua, liburua bera, ezinbestekoa da. Horregatik, aurtan, lan ondo eginaren poza ospatu dugu. Ibilbide luze honetan horixe geratzen zaigu, egina, eta egindakoaren jarraipen ziurtatua. Fundazioa egin genuenean, horixe bermatu baikenuen: gure lanarekin euskal kultura laguntzea, bultzatzea”.

Hasieran ni kanpoan ibili nintzen. Dendan Joseba eta Beasaingo neska bat egoten ziren: Maria Jesus Lizarazu. Laguntzen, berriz, Balere Bakaikoa. Ni bizpahiru urte geroago hasi nintzen dendan, hau da, Bilintx Esterlines kalera igaro zenean. Alegia, euskarazko produkzioa hazi zenean, Fermin Kalbetonen euskarazko eta euskal gaiko materialak utzi genituen. Esterlines kalean, gaztelaniatzko materiala. Orduantxe hasi nintzen ni Fermin Kalbetoneko Bilintxen. Ordurako, Maribi Legarra ari zen han lanean.

Giro bereziko liburu denda, inondik ere.

Aurkezpen asko egiten zen han, eta aurkezpen gabe ere, idazle denak pasatzen ziren handik. “Denak” gaur egun baino gutxiago baziren ere. Idazle izatea ez zen nolana hikoia. Esanahi berezia zuen. Miresmen handia genion idazleari. Bilintxen bertan solasaldi handiak egiten ziren. Euskaltzaleen topaleku eta topagune izan zen, askoren biltokia. Jendeak denbora ematen zuen dendan, ordu erdi edo ordubete, liburuei begira eta berriketan. Jendeak denbora zuen orduan.

Topaleku eta topagune izateak onik nahi ez zizuetenen arreta ere bereganatu zuen.

1984ko azaroaren 20an Santi Brouard hil zuten. Bada, ondoko bi urteetan, egun horrekin batera, lehergailu bana jarri ziguten eskuin muturrekoek. Ez dut uste Donostian beste liburu dendarik izan zenik lehergailua jaso zuenik. Beste liburu denda bati, Lagun-i, kristalak txikitu zizkieten.

Gaur egun, ile-apaindegi edo taberna irekitzeko tirria du jendeak. Azkena da liburu denda. Zuek, Bilintx eta gero beste hainbat denda ireki zenituzten.

Bilintxek oso harrera ona eduki zuen. Bestalde, Bizkaitik eta Nafarroatik ere jendea etortzen zitzaigula konturatu ginen eta, ondorioz, Bilbon eta Iruñean antzeko zerbait behar zela erabaki genuen. Alegia, produktu eskaintza egin behar zen hiri haietan, euskarazko materialak han bizi zen jendeari hurreratu. Horrela etorri ziren Xalbador eta Urretxindorra dendak. Hutsunea ikusi genuen, eta hutsunea betetzera jo genuen. Gasteizen, berriz, duela gutxi arte ez dugu ireki, hutsunea beteta zegoelakoan. Baziren bi denda, lan hura egiten zutenak, eta guk ez dugu behin ere inorekin lehian jarduteko asmorik izan. Nahiago izan dugu elkarlana.

Ondoren etorri ziren herrietako “Bilintx”-ak.

Bergarako, lehena. Ixtera zihoan liburu denda zen, eskaini egin ziguten, eta hartu egin genuen. Gero, Irunen ireki genuen beste bat. Han ere, dendako nagusia erretiroa hartzekotan zen. Lehenengo beste pertsona batek hartu zuen eta gero guk, harekin adostuta. Tolosan, aukera bat baliatuz ireki genuen denda. Azkena, Gasteizkoa: liburu denda batek itxi, besteak ere bai, hurrena ixteko zorian... Bada, Arriaga ireki genuen. Iparraldean, berriz, Mattin megadenda ireki genuen, Iparraldeak ere zerbaiten beharra zuelakoan, nahiz eta han ez den Hegoalde honetako surik, ez indarrik.

“Jaka = lana” da esaera. Horrela al da?

Eskertzekoa da. Larre motxean haziak gara, hori egia da. Morroi egoteak eskolak adina erakusten du. Zuk Jaka esan duzu, baina Sors eta Lizarraga gu bezain langile edo langileago dira. Diruagatik lan egitea baino, proiektuaren alde egitea lehenetsi dugu beti: lan egiteko era profesionala, kultur proiektuarekiko konpromisoa, eta etekinen berrinbertitzea. Hiru horietan saiatu gara.

Banatzaile ere zeuek izateak hainbat lagunduko zizuen arrakasta izaten...

Osagarri da, nahiz eta ahalegintzen garen liburu dendak berak errentagarri izan daitezen, ekonomikoki buruaskiak. Dena den, esan dizut, gure kasuan, errentagarritasuna bi eratakoa da: ekonomikoa, eta kulturala.

Zertan da liburua gaur egun?

Bistan da ez duela bizi bere momenturik onena. Garai batean, izan ere, dirua egiten zen liburua-rekin. Etxez etxeko bildumak saltzen eta, dirua egiten zen. Gaur egun gutxiti egin da liburu kontsumoa. Aisialdirako eskaintza hazi egin da. Telebista kateak, Internet... Gizartearen joera aisialdi pasiboa praktikatzekoa da, liburuak eskatzen duen jarrera aktiborik gabe. Hori da kontsumoa gutxiti izanaren arrazoietako bat. Bestalde, lehen kezka handiagoa zegoen. Irakurtzeak norbera osatu egiten zuen, jantzi –gaur egun ere bai–, baina premia hori guztiz barneratua zuen gizarteak, gaur ez bezala. Beste arrazoi bat, nahi baduzu, merkatu eta kontsumo ohiturak aldatu izana. Gure garaian, familian ez zen hiztegi entziklopedikorik faltako. Gero, CD-Romak egiten hasi zirenean, akabo. Ondoren, Internet... Hiztegi entziklopedikorik ez dago etxetan. Haatik, kontsulta egiteko ez beste ezertarako erabiltzen da Internet.

Garai bateko nostalgjarik baduzu?

Garai ederra izan zen, polita. Bilintxen egin nituen urteak nostalgiaz bizi ditut, bai. Oso momentu goxoak igaro nituen han. Harreman mordoia izan nuen jende askorekin, iritzi truke handia. Oroitzapen politikak ditut. Gustura itzuliko nintzateke Bilintxeko salmahaira. Bezeroekiko harremana izugarri baloratzen dut, oso aberasgarria da.

Anekdotarioa ere izan behar duzu zuk...

Hortik ere badugu, bai. Behin, etxekoandre bat etorri zitzaidan, Fernando Amezketarren liburu eske. Eske, baina zera balitz bezala, Moisesen denborako liburua, eskuraezina...

AZKEN HITZA

Bittori Auzmendi Garziandia

“Meritua amak du. Zortzi seme izan zituen, zazpi hazi eta hezi zituen. Eta haren bizitza zaila? Hiru edo lau ume inguruan beti, haiek zaindu beharra, etxeko martxa zuzendu, janaria eta beste, garbitzeak... gaur egungo aurrerapenik ez zegoen garaian! Horrekin batera, baserriko lanak: soro-baratzeak, ganadua gobernatu, jetzi... Emakume zaildua, sufritua, kementsua; gutxitan ikusi gaitu zazpi anaiok batera, bata morroi joana zela, bestea fraide... Etxean, hiru-lau baino ez zen izan aldi oro. Gaur egun, urtero biltzeko ohitura dugu, San Migel inguruan, anaiok eta gainerako senideok. Hogeita hamalau lagun bildu gara. Laurogeita bost urte ditu eta baliteke bai, berak merezi izatea elkarrizketa”.

Eta liburu hura eskuratzen baino errazagorik ez zegoen. “Zenbat?”, berak, eta “300 pezeta” edo, nik. Bada, liburuak balio zuena eta beste bost duro eman zizkidan: “hori, kafe bat hartzeko!”. Beste behin, txinatar ezaugarriak zituen neska bat etorri zitzaigun, “egunon!”-ka. Niretzat, sekulako txokea izan zen. Gaur egun gauza arrunta da, baina orduan ez. Euskal Filologia egiten ari omen zen. Orain dela hogei, hogeita bost urte gertatu zitzaidan.

Liburu saltzailearen eta eroslearen arteko garai bateko harreman konfiantzazkoa ez ote da posible gaur egun?

Bai, zergatik ez. Ordukoa zaila da, beharbada, gertutasuna handia zelako. Gaur egun jende uholdea igaro ohi da Bilintxetik, orduan ez bezala. Duela gutxi arte, berriz, Bilboko Urretxindorran Karlos Zarragak harreman giro horri eusten zion. Gasteizko dendan, Rafa Etxegaraik eutsi dion bezala. Gaur egun saltzaile ari den jendea berria da oraindik, gaztea, eta denbora behar du harreman sare hori egiteko. Baina oraintxe ere badaude halako saltzaileaz galdetzen duten bezeroak. Hura ez badago, hurrena etorriko direla esan eta joan egiten dira. ■

Baltegi landa etxea




Baltegi Landa Etxea
Murgindueta bidea
31849 Iruñeta (Nafarroa)
Tel.: 649 23 45 49
e-posta: baltegi@sakanerria.com
web orria: www.baltegi.com